

hondo-hondotik

Edu Zabala

(LAB irakaskuntzako kidea)

Hezkuntza Saila eta oposizioak, baina zer da hau?

Iazko ikasturtean Inaxio Oliverik Gabonetako prentsaurreko batean adierazi zuen oposizioak egin egingo zirela eta eman zituen datak eta ziurtasun irudia hauteskundeak aurreratzearekin bertan behera etorri ziren. Urte horretan sindikatuak eta Hezkuntza Sailak mahai negoziatzailean sartuta zeuden, baina gai hori agendaren azken tokian zegoen, ez zen kasualitatea. Hauteskundeen ondoren berriro ere EAJ eta EA nagusi atera eta kartera banaketari ekin zioten. Hezkuntza Saileko sailburu berria zen Sabin Intxaurreagak Hobetuz-eko bilateral batean ELA eta LABekin berriro ere aitortu zuen lan eskaintza publikoaren gaiari lehentasunez helduko ziotela, baina IUren sarrerak hainbat pieza mugitu zituen gobernuan eta, Intxaurreagaren ordeztasuna eta ziurtasun falta ikaragarria zabalduz.

Dantza horren guztiaren ondoren LAB sindikatuak bilera bat eskatu zion Hezkuntzari eta Nekane Agirre sailburuordearekin elkartu zen. Bilera horretan, beste gai batzuen artean, galdera bat egin zion LABek. Oposizioak egongo da? Erantzuna ezezkoa da. Ez dute ikusten beren burua prestatuta urte honetan eskaintza publiko batek suposatzen duen antolakuntza, negoziatio eta abarri aurre egiteko. Urriaren 5ean, EUSKALDUNON EGUNKARIAN, hau esa-

ten zuen berri bat agertu zen: «*Lehentasun osoz» ekingo dio Jaurlaritzak Lan Eskaintza Publikoaren prozesuari*. LABek, «buletin digitala» soporte informatikoaren bidez, joan zen ostiralean bidali zuen hiru probintzietako ikastetxe publiko guztietara *oposaketarik ez* izenburuko orri informatiboa, eta hor agertzen diren hainbat elementu garatu nahi ditugu, azken aldaketa hau kontuan izanik.

— Lotsagarria da administrazioak sindikatuokin dituen bilertan ematen duen irudia (gaur bai, baina bihar ez eta etzi agian baliteke), ordeztasun zein interinoekiko ireki nahi diren negoziatioetan ezegonkortasuna eta ziurtasun falta ikaragarria zabalduz.

— Kolektibo hau ezin da egon indefinizio honetan, beraiek ere beren burua eta denbora antolatu beharra baitaude aurre egiteko balizko OPE bati.

— Oposizioak bai, oposizioak ez gaiak LABentzat sakoneko arazo larri bat ezaltzen du oraindik: *kolektiboaren zein ikastetxeen ezegonkortasuna*. Jakina da urteroko esleipenetan, konkurtsiloetan, bai Lehen zein Bigarren Hezkuntzan Hezkuntza Sailak plazak emateko orduan duen sistemak

sortzen dituen arazo ugariak: lanpostuen gehiegizko definizioa (hainbat zuzendarien nahietara makurtzen direlarik), beste plaza batzuen osaketa irrazionala, konkurtsiloaren beraren antolakuntza: egun beren Hiru lurralde ezberdinetan, irizpide ezberdinekin nahiz eta Administrazio beraren pean egon, eta plaza hartu ondoren ez da bukatzen kalbarioa, ez, ikastetxean bertan, ordeztasun egiten zaio markaje, presioa, plaza bertan behera utz dezan.

— Oraindik ere, nahiz eta duela bi ikasturte bukatu bigarren hezkuntzako berratzikipenak, *ikas-tetxeek ez dute klaustro egonkorrik*, bere proiektuak ziurtasunez eta duintasunez aurrera eramanez ahal izateko.

— Ez gara inozoak izan behar balizko OPE batek (1.600 plaza aterako omen dituzte) sistema epe laburrean egonkortuko duela pentsatuz. Alde batetik, LABen kalkuluen arabera, 3.000-3.500 plaza eskaini beharko lirakeke eta, bestetik, plaza ateratu ondoren hasten den prozesuak (urtebeteko praktika, lekualdatze-lehiaketan parte hartu beharra plaza bat jabegoan hartzeko (gehienetan ez da norberak nahi duena) eta gero bi urtean behin

egoten den dantza finkoen artean ere...) erakusten du Hezkuntza sistemaren antolakuntzak badituela hainbat elementu aldatu beharrekoak.

— LABek nahaste-borraste honetan guztian berresten du iaz ere bere negoziatiozako plataforman aldarrikatzen zituen hainbat elementu: aukera eman behar zaie Hezkuntza Proiektua garatu nahi duten ikastetxeei, borondatez eta betiere errespetatuz esleipen-sistema, proiektuak irauten duen bitartean plantilla egonkorra izateko aukera beste baliabideekin batera (plaza bereziak «singularrak» definitzea, baliabide ekonomikoak proiektua aurrera eramateko eta abar eta abar).

— Gainera, esleipen-sistema hau aldatu beharra dago gaur egungo zoramena gainditzeko: hainbat ordeztasun finka daitezke ikastetxeetan, interino egonkorrekin egiten den bezala, esleipenak leku batean eta ez hiritan egin beharko lirakeke, eskualdeko poltsak ireki eta plazak eman ondoren, berme batzorde bat antolatu sindikatu eta Administrazioaren aldetik hartutako plazak babesteko. Hau guztia dela eta, Administrazioari eskatzen diogu ahoa ireki baino lehen ondo pentsatu dezala zer esan, zeren denon sinesgarritasuna eta Hezkuntza Sailarena ere jokoan baitago. *Beraz, oposaketarik bai ala ez, Kontseilari Anderea?*

BALIZKO OPOSIZIOA

1.600 plaza aterako omen dituzte, baina, LABen arabera, 3.000-3.500 plaza eskaini beharko lirakeke

Iñaki Sarriugarte Irigoien

(Irakaslea)

Durangoko Liburu Azokaren egoitza berriaz

1965ean, Gerediaga kultur taldearen ekimenez, Durangoko Liburu eta Disko Azokak Santa Maria eleizako eleizpean aurkitu zuen aterpe. Eleizpe zaharrak, abegitsu eta amultsu, Domu Santu egunez, 18 salmahai hartu zituen bere baitan, horretara euskal liburugintza-aren erakustoki nagusi bilakatu. Zorionez, baina, laster geratu zen txiki. Aterpe klasiko hartatik, 1974an Liburu Azoka Durangoko plazara aldatu zitzaigun. Bendeja-zaranak eta kirol-saskiak batzen zituen udal azokalekura abiatu ziren euskal liburugintza eta diskogintza. Leku hotza eta hits samarra, nahiz eta aurrekoa baino handiagoa eta babestuagoa izan. Eta, zorionez, hori ere txiki geratu zitzaion heldutasunaren atean zegoen euskal literaturari. Gerora, euskal liburuak oihaltze zuri eta zabal bat izan du habia. Modernoagoa aurrekoak baino; funtzionalagoa, eta abendu hasierako uholdea — iaz 230 bat saltoki eta zenbait ezin ahalako

jende emana— hartzeko egokiagoa; epelagoa ere bai, aukeran. Zelako beharrak, hala-ko bitartekoak. Eta horretan mutilak izan dira beti azokaren antolatzaileak, gerediagatarrak-eta. Izan ere, itaurreko bikainak izan ditu hasieratik bertatik euskal literaturaren erakustoki gero eta garrantzitsuago honek. Bihoakie euskaldunon eskerrona!

Edozelan ere, eskaera ozen bat entzuten izan da etengabe antolatzaile, bultzatzaile, zein literatur zaleen aldetik, ulertezina baitzen holako azoka nagusi batek egoitza iraunkor eta finkorik ez izatea. Eta inork eskaintzekotan, Durangok eskaini behar zion euskal literaturari egoitza hori, Durango eta euskal liburugintza estu-estu lotu baititu hain markada batzuetako dinamika aberatsak. Euskaltzaleak dakikeenez, hainbeste irrikatutako egoitza berri hori abian dago jadanik Durangoko udalaren eta Azpiegitura enpresa publikoaren lankidetzari esker. Egunokaz zabaldu den albisteak dioskunez, 2003. urte-

rako izango da prest aipatutako egoitza, nahiz eta azokatik aparte beste zenbait zereginetarako ere erabiliko den, antza. Lehiaketa publikoa ere bidean ei dago. Berri pozgarria, zinez. Hala eta guzti ere, gogoeta txiki bat egin nahi nuke abiatzeaz daukagun proiektu interesgarri honen inguruan.

Alde batetik, pentsatzen dut Durangok abagune historikoa duela euskal literaturari egoitza berezi eta erakargarri bat eskaintzeko; euskal artisten partaidetza lukeen etxe sinboliko, berritzaile eta esanguratsu bat, azken baten. Ez edozein eraikin, denik eta funtzionalena bada ere. Gogora dezagun Arantzazu, eta ikus dezagun zelan darion hango santutegiari artisten ukituaren erakargarritasuna eta xarma. Han Oteiza, Txillida, Basterretxea, Laorga, Saenz de Oiza, Eulate, Muñoz, Egaña... daude. Han lankidetzak aberatsa dakusagu. Bertan etorkizunari begira pentsatutako proiektu ausart eta original bat daukagu. Begi-gogoen abangoardiazko pausaleku bikaina. Nik neuk Durangorako, diferentziak diferentzia jakina, antzeko zerbait proposatuko nuke; eta horretarako gaurko artista eta arkitekto gazteei zabalduko nizkieke ateak, tradizioa eta berrikuntza lotuz euskal literatura omendu dezaten.

Bestetik, interesgarri ere interesgarria izango litzateke egoitza berri horretan eus-

kal literaturari buruzko erakusketa iraunkor bat antolatzea, teknikaren azken aurrerapen guzti-guztiak baliatuz, ikastetxeetako ume eta gazte jendeak ez eze, edozein literaturazale ere gure literaturaren berri era atsegin eta ulerterraz batez izan dezan. Kokagune berezi horretan literaturaren inguruko jardunaldi, aurkezpen, errezitaldi, mahai inguru eta abarrek ere leku ezin egokiagoa izango lukete, ekintzok duintasunez eta bitarteko guztiez egin ahal izateko. Dokumentazio-gune on batek, bestalde, habe sendoa eskainiko lioke euskal literaturaren etxe berriari, proiektu itxaropentsu hau errealitate eman-ko bihur dakigun. Azkenik, pentsatzekoak litzateke egoitza horretan literaturaren haurride erkina dugun antzerkiari leku finko eta duin bat oparitzea, urtean zehar eta maiztasun jakin batekin euskal antzerki taldeek euren lanak taularatu ahal izan ditzaten. Holako gune batek susperraldi errimeka lekarkioke, zalanza barik, dena beharrean dagoen euskarazko antzerkigintzari.

Durango: joka ezazu ausart eta eskaini euskal literaturari etorkizuneko etxe nortasundun, erakargarri eta abangoardista bat. Garazik euskarari behar zuen «thornuia» eman eta Etxepareren bitartez inprentarako bidea zabaldu bazion, esan beza geroak Durangok opetsi ziola euskal literaturari behar zuen Etxea, merezi zuen Egoitza.